

GIZARTE BERRIKUNTZAKO LHII

# Gizarte eta kultur animazioa eta turistikoa

● / 2017-XI-30 osteguna /



Jendeak duen irudia ez da guztiz egia // II

ELKARRIZKETA

“Txikitan zirkuko pailazoa izan nahi nuen” // III



Hernaniko parranda // III

Hernanik gazte ugari ditu musikazaleak direnak // IV

## I ARTIKULUA

# Jendeak duen irudia ez da guztiz egia

*Dinamika asko egiten ditugu, baina helburu batzuk dituzte, hezitzaile izatean beharko ditugun dinamikak baitira.*

APROPOSA ikusi dugu artikulu hau gure zikloari buruz hitz egiteko erabiltzea. Hau da, Animazio soziokultural eta turistikoko goi mailaren, funtzionamendu eta antolaketaz besteak beste.

Hasiera emateko, animazio soziokultural eta turistikoa zer den azalduko dugu. Animazio soziokultural eta turistikoa, Hernanin (Lanbide Heziketan) ematen den goi maila heziketa zikloa da. Ziklo honen helburua zera da, giza garapenerako esku-hartze proiektuak programatzea, antolatzea, dinamizatzea eta ebaluatzea. Hori lortu ahal izateko, talde dinamikak, giza baliabide, kultural eta aisialdirako baliabideak erabiltzen ditugu.

Zikloa hasi genuenetik hainbat irteera eta ekintza

burutu ditugu, alderdi teorikoak zein praktikoak garatzeko helburuarekin. Alde batetik antzerki batzuk ikusteko aukera izan dugu, "Treblinkara azken tren" joan den astean Hernanin izan zen, "Francoren bilobari gutuna" eta abar, zinemaldian ere izan gara bi bider. Kultur arloan ere hainbat irteera egin ditugu gure ezagutzak zabaltzeko helburuarekin. Kultur eredu ezberdinak landu ditugu honen bidez, Okendo kultur etxean izan ginen eta aurten Astran izan gara Gernikan. Bestalde, animazioaren alderdi praktikoak landu ditugu. Iaz zahar egoitzan izan ginen goiz batez animazio musikal bat eginez, Igeldoko eskolan inauteri jaiak antolatu genituen, Tolosan ingelesez jolasak egitera joan ginen,

## Aisialdi eta hezkuntza ez formalean hezitzaile izateko formatzen ari gara

korrika zela eta koreografia egin eta kontzertutxo bat eman genuen eta beste hainbeste gauza.

Bestalde, hainbat ikastaro praktiko izan ditugu, lan elkarriketen inguruko bat, lehen sorospentakoa, harremonak, clown tailerra ... gure ezagutzak ere tailer bidez gure kideei elarazi dizkiegu.

Orain hainbat proiektu ditugu esku artean. Gabonetarako erraldoi bat egiten ari gara, kale

animazioa bat gauzatzeko, honez gain, Wukrori laguntzeko asmoz azoka solidario bat antolatuko dugu. Gure eskolan "EPO"n Gazte informazio zerbitzu bat jarriko dugu martxan, eta azkenik Beldur Barik lehiaketa dela eta hiru bideo egin ditugu, hezitzaile izango garen eñean ezinbestekoa baita genero ikuspegia, egiten dugun gauza orotan genero ikuspegia kontuan izatea. Lehiaketaren orrialdean daude gure lanak ikusgai "Gaur ere", "Gau(r)" eta "Itzal morea".

Sarri entzun izan dugu egun osoa jolasean pasatzen dugula, ez dugula ezer egiten eta beste hainbat esames, hau ikusita erakutsi nahi dugu hori ez dela horrela. Aisialdi eta hezkuntza ez formalean hezitzaile izateko formatzen ari gara. Egia da

dinamika asko egiten ditugula, baina helburu batzuk dituzte, hezitzaile izatean beharko ditugun dinamikak baitira. Guztia ez da jolasa, atal teorikoak ere bere garrantzia du, taldeak dinamizatzea jolasak egitea baino gehiago da, helburu zehatz batzuk dituzte eta horiek irakurtzen ikasten dugu.

Beraz, laburbilduz esan liteke jendeak duen irudia ez dela guztiz egia, jolasak egiten ditugu bai baino ez da guztia jolasa. II

*Egileak:*

*Amaia Errazkin  
Karen Muñoz  
Laura Dakuña  
Joritz Bastarrika  
Ruben*



■ ELKARRIZKETA



## “Txikitan zirkuko pailazoa izan nahi nuen”

Asier Burguete Irundarra izan arren Hernanin ari da goi mailako Animazio Soziokulturala eta Turistikoa ikasten. Lehengo urtean Go!azen telesaian atera zen eta aurten ere errepikatu du esperientzia.

ASIERREN papera telesaian Markel Aranburu da, pertsonai honek ezaugarri hauek ditu; alaia eta oso lasaia da, “reee-laaax” esaldia da gehien errepikatzen duena.

### Nola zen zure egunerokotasuna Go!azenen atera baino lehen?

Gaszte “normal” bat bezala eskolara joaten nintzen, lagunekin zinemara joan, familiarekin txangoak egin... Astean hiru aldiz balleta izaten nuen eta asteburutan lagunekin parrandan ateratzen nintzen

### Zergatik Go!azen?

Dantza eta musika mundua beti izan dut gustuko. Balleteko irakasleak klaseko horman Go!azeneko tenporada berrirako pertsonaien bila zebiltzala

eta ETBko telesail bakarra izanik aukera ona ikusi nuen nire aktore karrerari bultzada bat emateko. Gainera erronkak asko gustuko ditut!

### Aktore izan nahi hori bokazioa da edo afizioa?

Aktore izatea afizioa bezala hasi zen baino bokazioa bihurtzea espero dut. Askok gustatuko litzaidake honetaz bizi ahal izatea.

### Go!azenen barruan esperientzia on eta txar bat kontatu.

Dudarik gabe gauza on bezala ezagutu ditudan pertsonak dira eta beraiekin lortutako harremana. Baita ere, orain arte ez naiz kamara baten aurrean jarri baina orain kamarari ez diot erreparorik.

Gauza txar bezala grabaketa

udaran egiten da eta oporrik gabe gelditzen gara!

### Ze giro dago Go!azenen?

Oso ona. Denen artean harreman bikaina dugu, ez bakarrik telesaiaaren barruan aktoreen artean, kamaralariekin eta produktioarekin ere. Oporraldi txikiak antolatu ditugu gure artean baita juerga eta afariak ere.

Gainera Hernaniar batek ere parte hartzen du telesaian eta berarekin ere konfiantza asko hartu dut.

### Nola ikusten duzu zuen etorkizuna?

Epe motzera beste telesai batean ikusi nahi dut neure burua, ahal izanez gero Euskal Herrian egindakoa, baina ez dizkiot euskal herritik kanpoko ekoizpenei atek ixten, antzerki eta telesai

munduan aukera handiagoa baitago hemendik kanpo.

### Txikitan zer izan nahi zenuen?

Aitatxo eta amatxoetara jolasen genuenean denok aita eta ama izan nahi zuten, edo umea, baita txakurra ere, baino nik zirkuko pailazoa izan nahi nuen. Handia ginenean klasekideak suhiltzaile edo futbolari izan nahi zuten baina ni nirean jarraitzen nuen, argi neukan, zirkoko pailazo izan nahi nuen.

### Egon ahal da momenturen bat Go!azenen ateratzeagatik damutu zarela?

Kalean edo leku publikoetan nagoenean pertsona asko izaten ditut atzetik, batez ere ume, gaztetxo eta gurasoak. Horren

ondorioz askotan intimitatea guztiz galdu dudala sentitu izan dut. Horrelako momentuak dira Go!azenen atera izateagatik damutu ahal naizena baina inoiz ez naiz egindako zerbaitez damutuko.

### Anektotaren bat kontatu

Oroitzen dut, “Aldapan gora” musikala grabatzean ari ginenean, aldapa bustia zegoela eta lurrera behin eta berriro erori ginen. Grabazio dibertigarria izan zen toma asko grabatu behar izan genuen arren. Nekagarria izan zen. ■

Egileak:

Maitane Romero  
Iker Txapartegi  
Irati Argiñariz  
Aizpea Lujanbio

■ IRITZIA

## Hernaniko parranda

Askok aldatu da azkeneko urteetan.

EZ genuke jakingo zergatik den esaten baina errealitate batean asko aldatu da Hernaniko gau giroa. Sagardo garaitik at aste-buruetan tabernan dagoen gaz-

teon perfila nabarmenki aldatu da. Kaxkoan dauden tabernak dira parrandako lekukoa daramatenak baina denbora gutxian jendea taberna gutxi bartzuetara joaten da.

Lehenik eta behin esan behar dugu adinari dagokionez oso gaztetxoak dira parrandan aritzen direnak eta hori

Oialume biltokia irekita dagoenean nabaritzen da gehienbat. Nahiz eta tabernak geroz eta kontrol gehiago eduki, “botelloia” geroz eta gehiago ikusten da Hernaniko gazteengan.

Jarraitzeko esan behar dugu jendearen beherakada handia izan dela eta gure ustez erantzule zuzena azken aldian

dagoen giro nahasia da, izan ere, lapurreta eta borroka asko ikusi dugu herrian. Gu jai giroan murgilduta gaudenean ez da batere atsegina horrelako jarre-rak ikustea ezin baitugu inolako momentuan gure aldean daramaguna begi bistatik galdu. Gaua gozatzeko da eta ez “rollo” txarrerako. ■

Egileak:

Irene Fernandez  
Lierni Roteta  
Lur Zabala  
Aroa Moreno

## ■ TALDE EZEZAGUNAK

# Hernanik gazte ugari ditu musikazaleak direnak

Azken urteotan talde herrikoi asko sortu dira. Hauetako bi taldeen hasiera ezagutzeko aukera izan dugu.

“Lau Txori” taldea duela bi urte sortu zen, animazio soziokulturaleko lau ikasleen artean, gehien bat euskal kultura

musikalean oinarritutako gazte talde bat da. Bertako kideak, Zarautz, Zumarraga, Oiartzun eta Aiakoak dira.

Hauen hurrengo kontzertua Abenduak 1 ean izango da, Hernani bertan.

“El Quinto Con Tenedor” berriz, 2016 ean lagun talde batek sortu zuen ekitaldi baterako, eta denbora igaro ahala beraien musika estiloari jarraitu diote. Rock eta Heavy-a gaur egun ia galduta dagoen musika estiloa defendatzen dute.

Hauek ere lau kide dira, Hernani, Pasai Donibane eta Donostia ingurukoak.

“Metal Norte” jaialdian jotzeko aukera izan zuten azkeneko aldiz, Irungo Sala Tunk aretoan.

Bi taldeak abestien bertsi-oak egiteaz gain, beraien kantak ere konposatu dituzte. Susta ditzagun talde ezezagunak! ||

Egileak:

Asier Burguete  
Ainhoa Plagaro  
Julen Portillo  
Cynthia Martin



IKASLEEN TXOKOA

## GIZARTE ETA KULTUR ANIMAZIOA ETA TURISTIKOA

### Egileak

Goitik behera eta ezker-eskuin: Lur Zabala, Iker Txapartegi, Maitane Romero, Irune Fernandez, Cynthia Martin, Karen Muñoz, Laura Dacuña, Aroa Moreno, Saioa Garcia, Asier Burgete, Irati Arguiñariz, Ainhoa Plagaro, Amaia Errazkin, Aizpea Lujambio eta Joritz Bastarrika.

